

199. araua

Euskal Herriko kostaldeko leku-izenak

(Euskaltzaindiak 2024ko apirilaren 26an onartua, Iruñean)

Euskal Herriko hainbat leku-izen arautu ditu Euskaltzaindiak, bai banaketa administratiboari dagozkionak¹, bai eta entitate geografiko jakin batzuei lotutakoak ere². Azken multzo horretan sar daiteke itsas hegiko izen nagusiak biltzen dituen arau hau.

Orain urte batzuk, EITB komunikazio-taldeak Euskal Herriko itsasbazterreko hondartza, kala eta bainua hartzeko toki-izenen idazkera akademikoa emateko eskaera egin zion Euskaltzaindiari. Behar bezala erantzuteko, Onomastika batzordeak zerrenda atondu eta aztertu egin zuen. Lan hura oinarri harturik, orain, kostaldeko izenen zerrenda hura handitu eta zehatz aztertu ondoren, arau bihurtuta plazaratzen da.

Komunikabideek ez ezik administrazioek ere maiz erabiltzen dituzte kostaldeko izenak, baina, tamalez, guztiek ez dituzte molde berean ematen. Mapak, turismo-gidak, megafonia bidezko mezuak eta abar askotariko erabilera horren isla dira; bakoitzak bere irizpideen arabera erabiltzen ditu kostaldeko izenak. Horregatik, ezinbestekoa da toki-izenen era zuzen eta bateratuak ezagutzea denok era berean erabil ditzagun. Orobat, euskarazko jatorrizko izenei dagokien lekua aitortu behar zaie. Era egokiak finkatu ondoren gizarte-eragileek haien erabilera sustatzen badute, errazagoa izango da izen horiek gizarte osora zabaltzea.

Euskal Herriko hiru lurralde bustitzen ditu Kantauri itsasoak: Bizkaia, Gipuzkoa eta Lapurdi. Eta ezaguna da Euskal Herriak itsasoarekin izan duen lotura estua. Sasoi batean, lanak edo bizimodua ateratzeko premiak hurbiltzen zituen euskaldunak itsasbazterreko: itsas nabigazioak, arrantzak (itsasotik zein lehorretik), itsasoak ekarritakoak batzeak (egurrak eta itsas

¹ Hauek dira orain artean arlo horri dagokionez Euskaltzaindiak eman dituen arauak: 45. araua: *Gure egitura politiko batzuen euskal izenez* (1995); 57. araua: *Euskal herrialdeen, herriarren eta euskalkien izenak* (1996); 92. eta 99. arauak: *Zuberoako izendegia* (1998 eta 1999); 108. araua: *Lapurdiko izendegia* (2000); 122., 128. eta 133. arauak: *Nafarroa Behereko izendegia I, II eta III* (2001-2002, 2003, 2003); 139. araua: *Euskal Herria izena* (2004); 140. araua: *Gipuzkoako izendegia* (2004); 145. araua: *Bizkaiko izendegia* (2005); 150. araua: *Arabako izendegia* (2006); 155. araua: *Nafarroako izendegia* (2007-2009).

² Arau bakarra eman du Akademiak, 166. araua: *Euskal Herriko ibaiak* (2011).

belarrak)... Egun, herritar gehienek aisialdiarekin lotzen dute batik bat kostaldea: kirola egiteko (surfa, urpekaritza, kirol-ontziak...) edo hondartzaz, geologiaz zein paisaiatz eta abarrez gozatzeko.

Euskal itsas hegia

Entitate geografiko ugari ditu euskal itsasbazterrak: haitzak, hondartzak, lurmuturrak, senadiak... Halakoak izendatzeko leku-izenetako batzuk mapa zehatzetan baino ez dira ageri, udal-mapetan eta turismo-gidetan, esaterako; beste batzuk, berriz, izaera nagusikoak dira, mapa orokorretan agertzeko modukoak.

Gehienbat, azken multzo horretako izenak hautatu dira arau honetan. Batez ere, izaera naturaleko elementuak dira, geomorfologikoak, baina ez beti; izan ere, itsasoko bizimoduari lotutako lekuak ere aukeratu dira. Esate baterako, itsasargiak eta portuak jasota daude, baina bertako kai edo nasak alde batera utzita. Salbuespen gisa, berez kostaldeko elementuak izan gabe ere, kontuan hartu dira kresalaren usaina dakarten kultura-ondarearen erakusgarriak ezagunenak (*Bizkaia zubia*, *Haizearen Orrazia*), baita administrazioek darabiltzaten izen batzuk ere (*Urdaibaiko Biosfera Erreserba*).

Mapa orokorretan agertzen ez diren izen batzuk ere hautatu dira, interes berezia dutenak. Norbanakoek edo turismo-enpresek izen desegokiak zabaltzen dituzte sarri. Jokabide horrek tradiziozko formak arriskuan jar ditzakeela ikusita, horietako batzuk bildu dira araura, aurreko belaunaldietatik heldu diren izen egokiei bultzada ematearren. Talde horretakoak dira, esaterako, Bizkaian, Gorkizko *Askibil* izena eta, Gipuzkoan, Getariako *Aizpurupe*³.

Behin arautu beharreko kostaldeko lekuen zerrenda finkatuta, ahoz eta idatziz izan dituzten izendapenak aztertu dira. Izenak arautzeko orduan, garrantzitsua da alde aurretik tradiziozko erabilera ondo ezagutzea: batetik, iturri dokumentalek (kartografiak, bibliografiak eta artxiboek) idatzizko formen berri ematen dute; eta, bestetik, ahozko lekukotasunak gaur egun herriak darabilen ahoskeraren erakusgarri dira. Biak uztartuta, leku-izenen aldaera egokienak emateko ahalegina egin da.

Kostaldeko zenbait izen gutxitan aipatzen dituzte administrazioek; arrantzaleek, berriz, sarritan darabiltzate. Hori dela eta, izen horien idatzizko lekukotasun gutxi daude, ahoz erabili direlako nagusiki. Horrelakoetan, tentuz jokatu da, eta, ahozko toponimoak idatzira ekartzeko orduan, ez da

³ *Askibil* izen historikoaren ordez, *Cala de los contrabandistas* zabaldu da azken urteetan, eta, *Aizpurupe* izenaren ordez, *Playa Gris*.

oinarririk gabeko “berreraikitze”-lanik egin. Noizbait idatzizko lekukotasun gehiago agertuko balira eta argi-izpi berriren bat emango balute, kasuren batean edo bestean berraztertu eta egokituko lirateke hemengo izenak.

Idatzizko forma estandarra osatzeko, ez dira kontuan hartu ahoz ohikoak diren kontsonante epentetikoak (“*Karraspixo*”), ezta kontsonante-galerak ere (“*Saturran*”, “*Bedaruko Ogella*”). Horien ordeztu, euskara batuan bezala, forma osoak hobetsi dira: *Karraspio*, *Saturraran*, *Bedaroako Ogella*.

Kresalak bustitako izenen berezitasunak

A) Kontu jakina da leku-izen batzuek amaieran mugatzailea dutela, *Bizkaia* (-a) izenak, esaterako, eta beste batzuek, berriz, berezko -a itsatsia edo organikoa, *Gipuzkoa* izenak, adibidez. Bereizketa hori egiteko, Euskaltzaindiaren Euskal Onomastikaren Datutegian (EODA), mugatzailedunei, “(-a)” marka erantsi ohi zaie izenaren ostean. Berdin jokatu da arau honetako izenekin: *Dunbarriak* (-ak), *Dunbarrizabala* (-a), *Kardalmuturra* (-a), *Talaiapea* (-a) izenak mugatzailedunak dira, eta “(-a)” horri esker garbi geratzen da amaierako hori mugatzailea dela eta horrek ondorioak dituela kasu-markak jasotzean (*Dunbarrietako*, *Dunbarrizabalera*, *Kardalmuturretik*, *Talaiapeko*).

B) Erdarazko leku-izenetan ere artikulua agertzen da zenbaitetan. Horrelakoetan, eutsi egin zaio artikuluari. Bi adibide ematearren, Muskizko *La Arena* hondartza (gaztelania) eta Biarrizko *Lo Bastar* haitza (gaskoia). Zerrendan horrela jaso diren arren, aipatzekoa da euskaldunek, batzuetan, beste hizkuntzetako artikulua horiek kentzeko joera izaten dutela (*Arenara noa bainu eder bat hartzera*).

C) Amaierako bokal-aldaketak. Horrela esan ohi zaie euskalki eta hizkera batzuetan -a amaiera duten izenak determinatzailea hartzean izaten dituzten gertaera fonikoei (disimilazioak eta asimilazioak). Adibidetzat *hanka* hitz arrunta hartuta, erraz ulertuko da: *hanka* + *a* adierazteko (mugatu singularra), mendebaldeko hizkeretan *ankea*, *anke*, *ankia*, *ankie*, *anki...* esaten da. Leku-izenetan ere berdin gertatzen da: *Astondopunte* (Gorliz), *Erlepeko puntie* (Bakio), *Ieko lapatzie* (Ea). Adibide zehatz horiek, modu estandar jasoan, honela eman dira: *Astondopuntea* (-ea), *Erlepeko puntea* (-ea), *Eako lapatzia* (-ea). Absolutiboan “(-ea)” erabiltzen bada ere, kasu-markak hartzean honela jotzen da: *Astondopuntatik*, *Astondopuntako*. Dena dela, esan beharra dago mendebaldean -a amaieradun izen guztiek ez dutela sistematikoki (-ea) marka hartzen. Horregatik, idatzizko edo ahozko lekukotasunek harmonia hori erakusten dutenean baino ez da jaso. Gainerakoetan, -a amaiera orokorrari eutsi zaio.

D) -e paragogikoa. Horrela esaten zaio zenbait leku-izeni amaieran eranstean -e horri. Mendebaldeko ahozko jardunean bizi-bizi dabilen fenomeno da; horrez gain, aspaldiko dokumentazioak erakusten du kasu batzuetan ez dela oraintsuko joera. Adibide ezagunena, beharbada, *Gaztelugatxe* izena da; 1653. urtean, esaterako, *Gazteluache* era lekukotzen da. Adibide horretan, itxuraz, (h)atx 'haitz' dago oinarrian; baina, kasu-markak hartuta, *Gaztelugatxera* edo *Gaztelugatxetik* formatatik abiatuta, "fosilduta" geratu zen amaierako -e hori. Horregatik, ez litzateke egokia gaur egun *Gaztelugatx* formaren alde egitea.

Ahozkoan bizirik egonik XIX. mendetik edo lehenagotik dokumentatzen denean, eutsi egin zaio -e paragogikoari, balizko berreraikuntzarik egin gabe (*Barinatxe*); baina, ahozkoa mugatzen den kasuetan, dokumentazioan ez bada ageri, edo berriki lekukotzen bada, paragogerik gabeko idazkera hobetsi da (*Frailatx*)⁴.

E) Hondartzak eta itsasadarra. Hondartza batzuek izen berezia dute (*Ereaga, Itzurun, Madraga*), baina beste batzuk herriaren edo auzoaren izenari -(e)ko *hondartza* gehituta osatzen dira. *Gorlizko hondartza* izenaren kasuan *Gorliz* jarritz gero, ez litzateke bereiziko udalerriaren izenetik. Beste kasu batzuetan, ordea, izenak berak adierazten du hondartza dela: *Ondarretako hondartza* baino egokiagoa da *Ondarreta* huts-hutsik jartzea, izen bereko auzoan dagoen arren.

Itsasadar batzuek, goragoko ibaiaren izena atxiki beharrean, zeharkatzen duten herriaren izena hartzen dute: *Bilboko itsasadarra, Plentziako itsasadarra*. Beste zenbaitetan, ibaiaren izen espezifiko bera dutenez, *Barbadunen itsasadarra edo Barbadun itsasadarra, Urumearen itsasadarra edo Urumea itsasadarra* moduan arautu dira, eta ez *Barbadungo itsasadarra, Urumeako itsasadarra* moduan.

Zerrenden egitura

Hiru multzotan antolatu dira Euskal Herriko kostaldeko leku-izenak: Bizkaiko itsasbazerreko izenak hasieran, Gipuzkoakoak ondoren eta Lapurdikoak azkenik. Lurralde bakoitzeko leku-izenak emateko orduan ere, mendebaldetik ekialderako bideari jarraitu zaio.

Tauletako informazioa lau zutabetan banatu da. Lehenengoan, leku-izena agertzen da, osagai espezifikoa, eta, batzuetan, baita osagai generikoa ere. Bigarren zutabean, izen bakoitzaren entitate geografikoa zehazten da.

⁴ Salbuespenen bat ere badago, *Gorrondatxe* esaterako; era horren alde egin da zabal-zabal erabiltzen delako eta oso normalizatuta dagoelako, nahiz eta ez den aurkitu idatzizko aspaldiko lekukotasunik.

Hirugarrenak toponimoa kokatuta dagoen udalerriaren izena dakar. Laugarren zutabea, azkenik, zenbaki baten bidez zehazten da zein mapatan dagoen leku-izena.

Lehen zutabeko izen arautuak bi osagai dituenen, zati espezifiko eta zati generikoa, bigarrenak bat egiten badu izendatzen duen entitatearekin, letra xehez hasita jarri da; osterantzean, bi osagaiak doaz letra larriz hasita. *Algorriko muturra (-a)*, esaterako, letra xehez hasita ageri da, *muturra* “punta” entitatearen baliokidea baita. *Biarritzko Hondartza Handia (-a)* izenaren kasuan, bai *Hondartza*, bai *Handia*, biak eman dira letra larriz hasita, izen espezifikoaren parte direlako.

Berez bi hitzetan eman beharko lirakeen leku-izen batzuk, mendez mendeko erabileragatik, lexikalizatu egin dira. Horrelakoak, salbuespentzat hartuta, hitz bakarrean arautu dira: *Artzukoportu*, *Kurtzekoatxe*.

Zenbait kasutan, izen bat baino gehiago jaso da lehen zutabea:

- a) Alonimoa. Horrela izendatzen da leku-izen baten izen baliokidea. Azken batean, leku jakin batek izen bat baino gehiago izan dezake. Getxoko *Gorrondatxe* hondartza ezagunari, esaterako, *Askorri* alonimoa gehitu zaio. Bi izenak jaso dira, egokiak izateaz gain, biak erabiltzen direlako. Biarritzen dagoen *San Martin* izeneko lurmuturrak ere badu alonimoa: *Haitzarte*. Horrelakoetan, denborak (erabilerak, alegia) esango du zein nagusitzen den.
- b) Era laburra. Leku-izen batzuen ondoan era laburrak ere ematen dira. Erabilera lokaleko argitalpen eta mapak, sarritan, idazkera bereizgarri batez baliatzeko moduko erak dira, edo bide-seinale batean hondartzaren piktogramaren ondoan erabil daitezkeenak. *Kontxako hondartza* izenaren ondoan, adibidez, era laburra ere jaso da: *Kontxa*. *Erromardiko hondartza* izenari, berriz, *Erromardia (-a)* gehitu zaio.
- c) Izen hedatua. Beste zenbaitetan, izen jakin bati, izen bereko beste lekuetatik bereizteko, izen hedatua edo garatua gehitu zaio. *Erdiko hondartza (-a)* izenak, kasu batean *Ziburuko Erdiko hondartza* izango du izen hedatutzat, eta beste batean, *Bidarteko Erdiko hondartza*. Azken batean, kazetariak albisteak emateko era luzeak behar izaten dituzte, entzule-irakurleek zalantzarik izan ez dezaten.

Lehen zutabea, bi osagai edo gehiago dituzten izenetako zati generikoan, tradiziozko erabilera gorde da: *koska*, *muturra* edo *punta*. Sinonimotzat jotzen dira, eta bizirik daude. Araua ulertzea errazteko eta estandarizazioaren izenean, entitate geografikoa ematean (bigarren zutabea) forma bakarra erabili da: “punta”. Nolanahi ere, beste zenbaitetan, zati generikoaren ahozko lekukotasunak estandarrera ekarri

dira; esaterako, hondartzak eta itsasargiak aipatzean (*plaia, aritzie* > hondartza; *paola, farua* > itsasargia).

Izenen bilaketa errazteko, beste bi zerrenda gehitu dira leku-izenak mendebaldetik ekialderako hurrenkeran dituen lehen zerrendaren eta mapen ondoren. Bigarren zerrendan, izenak alfabetoaren hurrenkeran aurkeztu dira, informazioa hiru zutabetan banatuta: leku-izena, entitate geografikoa eta udalerria. Hirugarren zerrendan, izenak entitate geografikoaren arabera ordenatu dira, eta beste bi zutabeetan leku-izena eta udalerria adierazi dira.

Mapak

Lehen zerrendaren ondoren, Euskal Herriko kostaldea irudikatzen duten hamaika mapa ezarri dira, zerrendetan ageri diren leku-izen guztiak zein bere kokalekuan adierazten dituztenak, hurrenkera honetan (mendebaldetik ekialdera):

1. Abra
2. Butroe
3. Matxitxako
4. Oka
5. Lea-Artibai
6. Deba-Urola
7. Oria
8. Urumea
9. Bidasoa
10. Urdazuri
11. Aturri

A) Izenak geografikoki antolatuta, mendebaldetik ekialdera

1. Bizkaiko leku-izenak

Izena	Entitate geografikoa	Udalerria(k)	Mapa
El Fraile	punta	Muskiz	1
Peñacercada	uharria	Muskiz	1
El Castillo Viejo	punta	Muskiz	1
Barbadun(en) itsasadarra (-a)	itsasadarra	Muskiz	1
La Arena	hondartza	Muskiz, Zierbena	1
El Lastrón	kostaldea	Zierbena	1
El Lastrón	hondartza	Zierbena	1
La Argolla	kostaldea	Zierbena	1
Las Entanillas	kostaldea	Zierbena	1
Luzueroko punta ⁵	punta	Zierbena	1
Seballo	punta	Zierbena	1
Zierbenako portua (-a)	portua	Zierbena	1
Zierbenako portuko hondartza; Portuko hondartza [era laburra]	hondartza	Zierbena	1
Bilboko Portu Autonomoa (-a)	portua	Zierbena, Santurtzi	1
Santurtziko portua (-a)	portua	Santurtzi	1
Bilboko abra; Abra [era laburra]	bokalea	Zierbena, Santurtzi, Getxo	1
Bilboko itsasadarra (-a)	itsasadarra	Santurtzi	1
Bizkaia zubia (-a)	monumentua	Getxo, Portugalete	1
Areeta	hondartza	Getxo	1
Areetako ontziralekua (-a)	ontziralekua	Getxo	1
Arriluzeko itsasargia (-a)	itsasargia	Getxo	1
Begoñako punta	punta	Getxo	1
Arriluzeko portua (-a)	portua	Getxo	1
Getxoko kirol portua (-a)	portua	Getxo	1
Itsas bidaia-erien terminala (-a); Bilboko portuko itsas bidaia-erien terminala (-a) [era hedatua]	portua	Getxo	1
Arriluzeko kaiko itsasargia (-a)	itsasargia	Getxo	1
Ereaga	hondartza	Getxo	1
Portu Zaharra (-a)	portua	Getxo	1
Algortako Portu Zaharreko hondartza; Portu Zaharreko hondartza [era laburra]	hondartza	Getxo	1
Erriberatxu	kostaldea	Getxo	1
Kanterape	kala	Getxo	1
Abasota	punta	Getxo	1

⁵ Luzero eta Lucero aldaerak herri-etimologiaz sortutakoak dira. Luzueroko punta hobetsi da Luzuero mendia ere badagoelako.

Izena	Entitate geografikoa	Udalerria(k)	Mapa
Arrigunaga ⁶	hondartza	Getxo	1
Galeako itsasargia (-a)	itsasargia	Getxo	1
Galeako punta; Galea [era laburra]	punta	Getxo	1
Batiz	kostaldea	Getxo	1, 2
Gorrondatxe; Askorri [alonimoa]	hondartza	Getxo	1, 2
Askorri	punta	Getxo	1, 2
Barinatxe	hondartza	Getxo, Sopela	2
Solondota	punta	Sopela	2
Arriatera	hondartza	Sopela	2
Atxabiribil; Aspiribil [alonimoa] ⁷	hondartza	Sopela	2
Atxuri	haitza	Sopela	2
Atxabiribil; Aspiribil [alonimoa] ⁷	haitza	Sopela	2
Ikatzaren hondartza (-a); Iturraldeostei [alonimoa]	hondartza	Sopela	2
Aspaltza (-a)	itsaslabarra	Sopela	2
Meñakotz	kala	Sopela	2
Kurtziope	kostaldea	Barrika	2
Barrikako hondartza	hondartza	Barrika	2
Arrizabala (-a)	itsaslabarra	Barrika	2
Arrizabala (-a)	kala	Barrika	2
Txitxarropuntea (-ea)	punta	Barrika	2
Gaztelu	punta	Barrika	2
Muriola	hondartza	Barrika	2
Usendegi	kala	Barrika	2
San Balentin; Sanbalentinatxa (-a) [alonimoa]	haitza	Barrika	2
Arkoteak (-ak); Arkoteatxak (-ak) [alonimoa]	harria	Barrika	2
Plentziako itsasadarra (-a)	itsasadarra	Barrika	2
Plentziako portua (-a)	portua	Plentzia	2
Plentziako hondartza	hondartza	Plentzia	2
Plentziako badia	badia	Plentzia, Gorniz	2
Arrikoarritxu	harria	Plentzia, Gorniz	2
Gornizko hondartza	hondartza	Gorniz	2
Astondoko hondartza; Astondo [era laburra]	hondartza	Gorniz	2
Astondopuntea (-ea)	punta	Gorniz	2
Askibil	kala	Gorniz	2
Errotatxu	kala	Gorniz	2
Askorriaga	punta	Gorniz	2

⁶ Arrigúnaga ahoskatzen da.

⁷ Atxabiribil eta Aspiribil aldaerak erabiltzen dira, baina lehenengoak indar handiagoa du. Osagaiak argiak dira, (h)atx+biribil. Deigarria da tartean artikulua duen Atxabiribil aldaera bestearen garai bertsutik lekukotzea (XVIII. mendetik, alegia).

Izena	Entitate geografikoa	Udalerria(k)	Mapa
Puntamotz	punta	Gorliz	2
Arrizabala (-a)	senadia	Gorliz	2
Gorlizko itsasargia (-a)	itsasargia	Gorliz	2
Billao; Legorrrari [alonimoa] ⁸	lurmuturra	Gorliz	2
Billao	uhartea	Gorliz	2
Arrianajeak (-ak) ⁹	haitza	Gorliz	2
Etxandarri	itsaslabarra	Gorliz	2
Sokako senoa (-a)	kala	Lemoiz	2
Urtzuriagako hondartza	hondartza	Lemoiz	2
Armintzako hondartza; Armintzako portuko hondartza [izen hedatua]	hondartza	Lemoiz	2
Armintzako portua (-a)	portua	Lemoiz	2
Armintzakalde	hondartza	Lemoiz	2
Anparrantxi	itsaslabarra	Lemoiz	2
Barasorda	senadia	Lemoiz	2
Urbietalde	kostaldea	Lemoiz	2, 3
Portumalde	kostaldea	Lemoiz	3
Usategi	punta	Lemoiz	3
Andiño	kostaldea	Bakio	3
Siskintza	punta	Bakio	3
Frailatx	punta	Bakio	3
Birgilandape	kostaldea	Bakio	3
Kurtzekoatxe	harria	Bakio	3
Estepona(ren) itsasadarra (-a)	itsasadarra	Bakio	3
Bakioko hondartza; Areaga [alonimoa]	hondartza	Bakio	3
Askorriak (-ak)	kostaldea	Bakio	3
Askada	kostaldea	Bakio	3
Kanterape	kostaldea	Bakio	3
Atxulo	punta	Bakio	3
Erlepeko puntea (-ea)	punta	Bakio	3
Gaztelugatxe	uhartea	Bermeo	3
Gaztelugatxeko Doniene	biotopo babestua	Bermeo	3
Aketxe	uhartea	Bermeo	3
Matxixako	lurmuturra	Bermeo	3
Matxixakoko itsasargia (-a)	itsasargia	Bermeo	3
Arribolak (-ak)	kostaldea	Bermeo	3
Areatzatxu	hondartza	Bermeo	3
Tonpoiandia (-a); Tonpoinagusia (-a) [alonimoa]	senadia	Bermeo	3

⁸ Legorrrari alonimoa erabilera lokaleko formatzat jo daiteke.

⁹ Izenak dioenez, 'harri anaiak' izan ziren, baina 2018. urtean ekaitz batek bi haitzetako bat eraitsi zuen.

Izena	Entitate geografikoa	Udalerria(k)	Mapa
Tonpoitxikia (-a)	kala	Bermeo	3
Talape	kostaldea	Bermeo	3
Bermeoko portua (-a)	portua	Bermeo	3
Bermeoko portu zaharra (-a)	portua	Bermeo	3
Artza	portua	Bermeo	3
Izaro	uhartea	Bermeo	3
Ondartzape	kostaldea	Mundaka	3, 4
Ondartzape	hondartza	Mundaka	3, 4
Santa Katalina	punta	Mundaka	3, 4
Mundakako portua (-a)	portua	Mundaka	3, 4
Mundakako itsasadarra (-a); Gernikako itsasadarra (-a) [alonimoa]	itsasadarra	Mundaka	3, 4
Laidatxu	hondartza	Mundaka	3, 4
Portuondo	punta	Mundaka	4
Portuondo	senadia	Mundaka, Sukarrieta	4
Toña	hondartza	Mundaka	4
Txatxarramendi	uhartea	Sukarrieta	4
Abiña	hondartza	Sukarrieta	4
Sandindere ¹⁰	uhartea	Sukarrieta	4
San Kristobal	padura	Busturia	4
Urdaibai	ibai-arroa	Zenbait	4
Urdaibaiko Biosfera Erreserba	biosfera erreserba	Zenbait	4
Kanalape	hondartza	Gautegiz Arteaga	4
Solabe	hondartza	Gautegiz Arteaga	4
Arbei	hondartza	Gautegiz Arteaga	4
Laida	hondartza	Ibarrangelu	4
Antzorape	hondartza	Ibarrangelu	4
Laga	hondartza	Ibarrangelu	4
Txoriatxa (-a)	punta	Ibarrangelu	4
Arnarri	punta	Elantxobe	4
Leunbetxikia (-a)	punta	Elantxobe	4
Leunbeaundia (-a)	punta	Elantxobe	4
Ogoño	lurmuturra	Elantxobe	4
Mandamandako zuloa (-a)	harpea	Elantxobe	4
Puztokia (-a)	kala	Elantxobe	4
Asteko puntea (-a)	punta	Elantxobe	4
Elantxobeko portua (-a)	portua	Elantxobe	4
Lapatzea (-ea)	kostaldea	Elantxobe	4

¹⁰ Uharte txiki horretan egon zen San Andres elizak eragin zuen izena.

Izena	Entitate geografikoa	Udalerria(k)	Mapa
Abadeatxa (-a)	punta	Ea	4
Ermintxo	punta	Ea	4
Natxituko lapatzea (-ea)	kostaldea	Ea	4
Eako lapatzea (-ea)	kostaldea	Ea	4
Eako itsasadarra (-a)	itsasadarra	Ea	4
Areatza; Eako hondartza [alonimoa]	hondartza	Ea	4
Bedaroako Ogella	hondartza	Ea	4
Ogella	hondartza	Ispaster	4
Penitentziarria (-a)	harria	Ispaster	4
Arrakulu	kostaldea	Ispaster	4, 5
Talaiapea (-a); Talaiazpia (-a) [alonimoa]	kostaldea	Ispaster	5
Antzoriz; Santa Katalina [alonimoa]	punta	Lekeitio	5
Santa Katalina	itsasargia	Lekeitio	5
Amandarri	punta	Lekeitio	5
Amandarri	itsasargia	Lekeitio	5
Lekeitioko portua (-a)	portua	Lekeitio	5
Isuntza	hondartza	Lekeitio	5
Aititamakurra (-a); Axmokor ¹¹ [alonimoa]	harria	Lekeitio	5
San Nikolas ¹²	uhartea	Lekeitio	5
Lea(ren) itsasadarra (-a)	itsasadarra	Lekeitio, Mendexa	5
Karraspiotxikia (-a)	hondartza	Mendexa	5
Karraspio	hondartza	Mendexa	5
Artzabal	harria	Mendexa	5
Egiluz	kostaldea	Mendexa	5
Endaidi	kala	Mendexa	5
Portuaundi (-a); Portunagusia (-a) [alonimoa]	kala	Berriatua	5
Uraundi	kala	Berriatua	5
Portutxiki	kala	Berriatua	5
Sagustan	kala	Berriatua	5
Arranbide	kostaldea	Berriatua	5
Munarripe	punta	Berriatua	5
Galtzuaranpe	kostaldea	Ondarroa	5
Arlasta	kostaldea	Ondarroa	5
Artape	kostaldea	Ondarroa	5
Ondarroako portua (-a)	portua	Ondarroa	5
Artibai(ren) itsasadarra (-a)	itsasadarra	Ondarroa	5
Arrigorri	hondartza	Ondarroa	5

¹¹ Gaur egun ahoz *Aitxitxamakurra* da nagusi, baina adin batetik gorakoek *Aitxitxamokordo* esaten diote. "Achmocar" dokumentatzen da 1744ko agiri batean. Hau da izenak erabileran izan duen eboluzioa: *Axmokor* → *Axmokordo* → *Aitxitxamokordo* → *Aitxitxamakurra*. Elezahar batek tradiziozko forma aldatzea eragin zuen.

¹² Bertakoek *San Nikolas* edo, besterik gabe, *islia* 'uhartea' izenak darabiltzate. Hala ere, historialari baten interpretaziotik abiatuta, azken urteetan asko zabaldu da tradiziozko ez duen *Garraitz* izena.

2. Gipuzkoako leku-izenak

Izena	Entitate geografikoa	Udalerrria(k)	Mapa
Saturrarán	hondartza	Mutriku	5
Saturrarango punta	punta	Mutriku	5
Idurrepe	kostaldea	Mutriku	5
Zazpiondartzak (-ak)	kostaldea	Mutriku	5
Santa Helenako punta	punta	Mutriku	5
Kardalmuturra (-a)	punta	Mutriku	5
Portuko hondartza; Mutrikuko portuko hondartza [era hedatua]	hondartza	Mutriku	5
Mutrikuko portua (-a)	portua	Mutriku	5
Kristozulo	kostaldea	Mutriku	5
Alkoleako punta	punta	Mutriku	5, 6
Arbe	itsaslabarra	Mutriku	5, 6
Arrilabango punta	punta	Mutriku	6
Ipitzarri	punta	Mutriku	6
Ondarbeltz	hondartza	Mutriku	6
Debako itsasadarra (-a)	itsasadarra	Deba, Mutriku	6
Debako portua (-a)	portua	Deba	6
Debako hondartza; Santiago [alonomoa]	hondartza	Deba	6
Lapari	hondartza	Deba	6
Aitzaundi	harria	Deba	6
Antosinpotzua (-a)	putzua	Deba	6
Toilpotzua (-a)	putzua	Deba	6
Aitzurizabala (-a)	kostaldea	Deba	6
Aitzuri	punta	Deba	6
Sondaurdiña (-a)	putzua	Deba	6
Mendata	kala	Deba	6
Sondabeltza (-a)	itsaslabarra	Deba	6
Sakonetako punta	punta	Deba	6
Sakonetaurre	kostaldea	Deba	6
Portuko zuloa (-a)	senadia	Deba	6
Kanaltxo	punta	Deba	6
Arantzazpi	kostaldea	Deba	6
Peungo zuloa (-a)	kala	Deba	6
Baratzazarreta	kostaldea	Deba	6
Palankamugarri	mugarria	Zumaia	6
Pikoteazpia (-a)	kostaldea	Zumaia	6
Itsaspe	itsaslabarra	Zumaia	6
Algorri	kala	Zumaia	6
Algorriko muturra (-a)	punta	Zumaia	6

Izena	Entitate geografikoa	Udalerria(k)	Mapa
Itzurun	hondartza	Zumaia	6
Itzuruntxiki	hondartza	Zumaia	6
Marianton	punta	Zumaia	6
Katuplaza	kostaldea	Zumaia	6
Inpernupe	kostaldea	Zumaia	6
Zumaiako itsasargia (-a)	itsasargia	Zumaia	6
Zumaiako bokalea (-a)	bokalea	Zumaia	6
Zumaiako itsasadarra (-a)	itsasadarra	Zumaia	6
Zumaiako portua (-a)	portua	Zumaia	6
Santiagotxiki	hondartza	Zumaia	6
Santiago	hondartza	Zumaia	6
Arranaitz	punta	Getaria	6
Orroaga	kala	Getaria	6
Izustarri	punta	Getaria	6
Aizpurupe	kostaldea	Getaria	6
Talaipe	kostaldea	Getaria	6
Alikanteko koska	punta	Getaria	6
Iruarriaundieta	kostaldea	Getaria	6
Kartajenako muturra (-a)	punta	Getaria	6
Kanpaiagako muturra (-a)	punta	Getaria	6, 7
Gaztetape	senadia	Getaria	7
Gaztetape	hondartza	Getaria	7
San Anton	mendia	Getaria	7
San Antongo itsasargia (-a)	itsasargia	Getaria	7
Getariako portua (-a) [Gipuzkoa]	portua	Getaria	7
Malkorbe	hondartza	Getaria	7
Santanapea (-a)	kostaldea	Getaria	7
Bigarren hondartza	hondartza	Getaria	7
Getariako kontxa	badia	Getaria	7
Altzagako harria (-a)	punta	Getaria	7
Lasuntalaia	itsaslabarra	Getaria	7
Aitzaundia (-a)	punta	Getaria	7
Ubiriko senadia (-a); Ubiri [era laburra]	senadia	Getaria, Zarautz	7
Itegi	punta	Zarautz	7
Allepunta	punta	Zarautz	7
Zarauzko portua (-a)	portua	Zarautz	7
Zarauzko hondartza; Zarautz [era laburra]	hondartza	Zarautz	7
Iñurritza	itsasadarra	Zarautz	7
Iñurritza	kostaldea	Zarautz	7
Talaipe	itsaslabarra	Zarautz	7
Artzabal	punta	Zarautz	7

Izena	Entitate geografikoa	Udalerria(k)	Mapa
Kurpitoarri	punta	Zarautz	7
Mallarri	kostaldea	Zarautz	7
Mallarri	uhartea	Zarautz	7
Amategiko muturra (-a)	punta	Zarautz	7
Orioko barra	barra	Aia	7
Oribarzar	hondartza	Orio	7
Orioko itsasadarra (-a)	itsasadarra	Orio	7
Orioko portua (-a)	portua	Orio	7
Orioko kirol portua (-a)	portua	Orio	7
Antilla	hondartza	Orio	7
Talaiazpia (-a)	itsaslabarra	Orio	7
Aranarri	punta	Orio	7
Burugain	punta	Orio	7
Itxaspeko zuloa (-a)	senadia	Orio	7
Aiznaltxiki	punta	Orio	7
Aiznalaundi	punta	Orio	7
Plaiaundi	kostaldea	Orio	7
Plaiatxiki	kostaldea	Orio	7
Urberde	itsaslabarra	Donostia	7
Agitiko senoa (-a)	senadia	Donostia	7
Antsoko muturra (-a)	punta	Donostia	7
Maiazpi	itsaslabarra	Donostia	7
Kargarri	senadia	Donostia	7
Artxabaleta	itsaslabarra	Donostia	7
Azpotegetia	itsaslabarra	Donostia	7
Galeraseno	uharria	Donostia	7
Lezkako muturra (-a)	punta	Donostia	7, 8
Munabeko arlastra	itsaslabarra	Donostia	7, 8
Arribeltz	punta	Donostia	8
Tximistarri	kala	Donostia	8
Gaztelutxo	itsaslabarra	Donostia	8
Seguarri	senadia	Donostia	8
Zentellazuloa (-a)	senadia	Donostia	8
Igeldoko itsasargia (-a)	itsasargia	Donostia	8
Arrikobajo	punta	Donostia	8
Haizearen Orrazia (-a)	monumentua	Donostia	8
Ondarreta	hondartza	Donostia	8
Loretopea (-a)	punta	Donostia	8
Kontxako hondartza; Kontxa [era laburra]	hondartza	Donostia	8
Kontxako badia	badia	Donostia	8
Santa Klara	uhartea	Donostia	8

Izena	Entitate geografikoa	Udalerria(k)	Mapa
Donostiako portua (-a)	portua	Donostia	8
Martinako zuloa (-a)	senadia	Donostia	8
Iturriaurre	itsaslabarra	Donostia	8
Kalabaka	harria	Donostia	8
Urumea(ren) itsasadarra (-a)	itsasadarra	Donostia	8
Zurriola	badia	Donostia	8
Zurriola	hondartza	Donostia	8
Monpas	punta	Donostia	8
Animetako muturra (-a)	punta	Donostia	8
Illurgita	senadia	Donostia	8
Platako itsasargia (-a)	itsasargia	Donostia	8
Arandotxikia (-a)	punta	Donostia	8
Pasaiaiko bokalea (-a)	bokalea	Donostia	8
Senoko zuloa (-a)	senadia	Pasaia	8
Gurutzeko punta	punta	Pasaia	8
Ondartxoko zuloa (-a)	senadia	Pasaia	8
Kalparreko muturra (-a)	punta	Pasaia	8
Talaia	punta	Pasaia	8
Pasaiaiko portua (-a)	portua	Pasaia	8
Rafaelmariaeneko portua (-a)	portua	Pasaia	8
Piedadeko ontziralekua (-a)	ontziralekua	Pasaia	8
Miradorea (-a)	punta	Pasaia	8
Alabortza	senadia	Pasaia	8
Arandoaundia (-a)	punta	Pasaia	8
Purrustarri	punta	Pasaia	8
Platintxulo	senadia	Pasaia	8
Azabaratza	kala	Pasaia	8, 9
Tximistakurratua (-a)	itsaslabarra	Pasaia	8, 9
Turruiko harmailak (-ak)	itsaslabarra	Pasaia	9
Turruia (-a); Turruiko punta [era hedatua]	punta	Hondarribia	9
Motelu	punta	Hondarribia	9
Biosnar	punta	Hondarribia	9
Kapelu	punta	Hondarribia	9
Gaztarriko plantaina (-a)	kostaldea	Hondarribia	9
Artzukoportu	kala	Hondarribia	9
Kapelaundiko badia	badia	Hondarribia	9
Amuaitz	uhartea	Hondarribia	9
Higer	lurmuturra	Hondarribia	9
Higerko itsasargia (-a)	itsasargia	Hondarribia	9
Asturiagako badia	senadia	Hondarribia	9
Kaiberria (-a)	portua	Hondarribia	9

Izena	Entitate geografikoa	Udalerria(k)	Mapa
Kontxa; Hondarribiko kontxa [era hedatua]	badia	Hondarribia	9
Hondarribiko hondartza	hondartza	Hondarribia	9
Hondarribiko kirol portua (-a)	portua	Hondarribia	9
Kaizarra (-a)	portua	Hondarribia	9
Molla	portua	Hondarribia	9
Plaiaundi	hezegunea	Irun	9
Txingudi	badia	Hondarribia, Hendaia	9
Bidasoa(ren) itsasadarra (-a)	itsasadarra	Hondarribia	9


3. Lapurdiko leku-izenak

Izena	Entitate geografikoa	Udalerria(k)	Mapa
Hendaiaiko portua (-a)	portua	Hendaia	9
Zokoburuko hondartza	hondartza	Hendaia	9
Ondarraitzu	hondartza	Hendaia	9
Dunbarrietako hondartza	hondartza	Hendaia	9
Dunbarriak (-ak)	uharteak	Hendaia	9
Dunbarriluzea (-a)	uhartea	Hendaia	9
Dunbarrizabala (-a)	uhartea	Hendaia	9
Erretak (-ak)	uharteak	Hendaia	9
Santa Ana	lurmuturra	Hendaia	9
Lohiko badia	badia	Hendaia	9
Txurruta	uhartea	Hendaia	9
Sorginzilo	kostaldea	Hendaia	9
Exanzabalgo itsaslabarra (-a)	kostaldea	Urruña	9, 10
Zokoko itsasargia (-a)	itsasargia	Ziburu	10
Zokoko gaztelua (-a)	monumentua	Ziburu	10
Zokoko gazteluko hondartza; Gazteluko hondartza [era laburra]	hondartza	Ziburu	10
Artha	dikea	Ziburu, Donibane Lohizune	10
Zokoko portua (-a)	portua	Ziburu	10
Belaontzien hondartza	hondartza	Ziburu	10
Zokoko hondartza; Zokoa (-a) [era laburra]	hondartza	Ziburu	10
Kuboaren hondartza	hondartza	Ziburu	10
Ziburuko hondartza; Ziburuko Erdiko hondartza [era hedatua]; Erdiko hondartza [alonimoa]	hondartza	Ziburu	10
Larraldeneko portua (-a); Ziburuko portua (-a) [alonimoa]	portua	Ziburu	10
Ziburuko itsasargia (-a)	itsasargia	Ziburu	10

Izena	Entitate geografikoa	Udalerria(k)	Mapa
Urdazuri(ren) itsasadarra (-a)	itsasadarra	Ziburu, Donibane Lohizune	10
Donibane Lohizuneko portua (-a)	portua	Donibane Lohizune	10
Donibane Lohizuneko itsasargia (-a)	itsasargia	Donibane Lohizune	10
Donibane Lohizuneko badia	badia	Ziburu, Donibane Lohizune	10
Donibane Lohizuneko Hondartza Handia (-a); Hondartza Handia (-a) [era laburra]	hondartza	Donibane Lohizune	10
Balearen Bizkarra (-a)	hondartza	Donibane Lohizune	10
Santa Barbara lurmuturra (-a)	lurmuturra	Donibane Lohizune	10
Santa Barbarako itsasargia (-a)	itsasargia	Donibane Lohizune	10
Erromardiko hondartza; Erromardia (-a) [era laburra]	hondartza	Donibane Lohizune	10
Lafiteneko hondartza; Lafitenea (-a) [era laburra]	hondartza	Donibane Lohizune	10
Maiarkobaitako hondartza; Maiarkobaita [era laburra]; Maiarkoenea (-a) [alonomoa]	hondartza	Donibane Lohizune	10
Zenizko hondartza; Zenitz [era laburra]	hondartza	Donibane Lohizune, Getaria	10
Arotzenkosta	hondartza	Getaria	10
Getariako portua (-a) [Lapurdi]	portua	Getaria	10
Parlamentuko hondartza; Parlamentua (-a) [era laburra]	hondartza	Bidarte	10
Uhabiko hondartza; Uhabia (-a) [era laburra]	hondartza	Bidarte	10
Erdiko hondartza; Bidarteko Erdiko hondartza [era hedatua]	hondartza	Bidarte	10
Erretegiko hondartza; Erretegia (-a) [era laburra]	hondartza	Bidarte	10
Ehun Mailako hondartza	hondartza	Bidarte	10
Errege Pabiloia (-a)	hondartza	Bidarte	10, 11
Ilbarrizko hondartza; Ilbarritz [era laburra]	hondartza	Bidarte	11
Milady	hondartza	Biarritz	11
Marbella	hondartza	Biarritz	11
Euskaldunen Kosta	hondartza	Biarritz	11
Karritz	haitza	Biarritz	11
Uhalde	kostaldea	Biarritz	11
Portu Zaharreko hondartza	hondartza	Biarritz	11
Ama Birjinaren haitza (-a)	lurmuturra	Biarritz	11
Gamaritz	haitza	Biarritz	11
Biarritzko portua (-a)	portua	Biarritz	11
Lo Bastar	haitza	Biarritz	11

Izena	Entitate geografikoa	Udalerria(k)	Mapa
Hondartza Handia (-a); Biarritzko Hondartza Handia (-a) [era hedatua]	hondartza	Biarritz	11
Miramar	hondartza	Biarritz	11
San Martin; Haitzarte [alonomoa]	lurmuturra	Biarritz	11
Biarritzko itsasargia (-a)	itsasargia	Biarritz	11
Amodio Ganbera	hondartza	Angelu	11
Klubeko hondartza	hondartza	Angelu	11
Urrezko hondartza	hondartza	Angelu	11
Mariñela	hondartza	Angelu	11
Kortsarioen hondartza	hondartza	Angelu	11
Madragattipia (-a)	hondartza	Angelu	11
Madraga	hondartza	Angelu	11
Itsasoko hondartza	hondartza	Angelu	11
Xiberta ¹³	hondartza	Angelu	11
Dunetako hondartza	hondartza	Angelu	11
Zaldunen hondartza	hondartza	Angelu	11
Barrako hondartza	hondartza	Angelu	11
Baionako barra	barra	Angelu	11
Angeluko seinale-dorrea (-a); Seinale-dorrea (-a) [era laburra]	itsasargia	Angelu	11
Baionako portua (-a)	portua	Angelu	11
Uhin-harresiko portua (-a)	portua	Angelu	11
Aturri(ren) itsasadarra (-a)	itsasadarra	Angelu	11

¹³ *Xiberta* izen historikoak gaur egun hondartza-eremu zabal samarra hartzen du.

























EUSKALTZAINDIA





B) Izenak alfabetikoki antolatuta

Izena	Entitate geografikoa	Udalerria(k)	Mapa
Abadeatxa (-a)	punta	Ea	4
Abasota	punta	Getxo	1
Abiña	hondartza	Sukarrieta	4
Agitiko senoa (-a)	senadia	Donostia	7
Aititamakurra (-a); Axmokor ¹⁴ [alonimoa]	harria	Lekeitio	5
Aitzaundi	harria	Deba	6
Aitzaundia (-a)	punta	Getaria	7
Aitzuri	punta	Deba	6
Aitzurizabala (-a)	kostaldea	Deba	6
Aiznalaundi	punta	Orio	7
Aiznaltxiki	punta	Orio	7
Aizpurupe	kostaldea	Getaria	6
Aketxe	uhartea	Bermeo	3
Alabortza	senadia	Pasaia	8
Algorri	kala	Zumaia	6
Algorriko muturra (-a)	punta	Zumaia	6
Algortako Portu Zaharreko hondartza; Portu Zaharreko hondartza [era laburra]	hondartza	Getxo	1
Alikanteko koska	punta	Getaria	6
Alkoleako punta	punta	Mutriku	5, 6
Allepunta	punta	Zarautz	7
Altzagako harria (-a)	punta	Getaria	7
Ama Birjinaren haitza (-a)	lurmuturra	Biarritz	11
Amandarri	punta	Lekeitio	5
Amandarri	itsasargia	Lekeitio	5
Amategiko muturra (-a)	punta	Zarautz	7
Amodio Ganbera	hondartza	Angelu	11
Amuaitz	uhartea	Hondarribia	9
Andiño	kostaldea	Bakio	3
Angeluko seinale-dorrea (-a); Seinale-dorrea (-a) [era laburra]	itsasargia	Angelu	11
Animetako muturra (-a)	punta	Donostia	8
Anparrantxi	itsaslabarra	Lemoiz	2
Antilla	hondartza	Orio	7
Antosinpotzua (-a)	putzua	Deba	6
Antsoko muturra (-a)	punta	Donostia	7
Antzorape	hondartza	Ibarrangelu	4

¹⁴ Gaur egun ahoz *Aitxitxamakurra* da nagusi, baina adin batetik gorakoek *Aitxitxamokordo* esaten diote. "Achmocar" dokumentatzen da 1744ko agiri batean. Hau da izenak erabileran izan duen eboluzioa: *Axmokor* → *Axmokordo* → *Aitxitxamokordo* → *Aitxitxamakurra*. Elezhar batek tradiziozko forma aldatzea eragin zuen.

Izena	Entitate geografikoa	Udalerria(k)	Mapa
Antzoriz; Santa Katalina [alonimoa]	punta	Lekeitio	5
Aranarri	punta	Orio	7
Arandoaundia (-a)	punta	Pasaia	8
Arandotxikia (-a)	punta	Donostia	8
Arantzazpi	kostaldea	Deba	6
Arbe	itsaslabarra	Mutriku	5, 6
Arbei	hondartza	Gautegiz Arteaga	4
Areaga [alonimoa]; Bakioko hondartza	hondartza	Bakio	3
Areatza; Eako hondartza [alonimoa]	hondartza	Ea	4
Areatzatxu	hondartza	Bermeo	3
Areeta	hondartza	Getxo	1
Areetako ontziralekua (-a)	ontziralekua	Getxo	1
Arkoteak (-ak); Arkoteatzak (-ak) [alonimoa]	harria	Barrika	2
Arkoteatzak (-ak) [alonimoa]; Arkoteak (-ak)	harria	Barrika	2
Arlasta	kostaldea	Ondarroa	5
Armintzkalde	hondartza	Lemoiz	2
Armintzako hondartza; Armintzako portuko hondartza [izen hedatua]	hondartza	Lemoiz	2
Armintzako portua (-a)	portua	Lemoiz	2
Arnarri	punta	Elantxobe	4
Arotzenkosta	hondartza	Getaria	10
Arrakulu	kostaldea	Ispaster	4, 5
Arranaitz	punta	Getaria	6
Arranbide	kostaldea	Berriatua	5
Arrianajeak (-ak) ¹⁵	haitza	Gorliz	2
Arriatera	hondartza	Sopela	2
Arribeltz	punta	Donostia	8
Arribolak (-ak)	kostaldea	Bermeo	3
Arrigorri	hondartza	Ondarroa	5
Arrigunaga ¹⁶	hondartza	Getxo	1
Arrikoarritxu	harria	Plentzia, Gorliz	2
Arrikobajo	punta	Donostia	8
Arrilabango punta	punta	Mutriku	6
Arriluzeko itsasargia (-a)	itsasargia	Getxo	1
Arriluzeko kaiko itsasargia (-a)	itsasargia	Getxo	1
Arriluzeko portua (-a)	portua	Getxo	1
Arrizabala (-a)	itsaslabarra	Barrika	2
Arrizabala (-a)	kala	Barrika	2
Arrizabala (-a)	senadia	Gorliz	2

¹⁵ Izenak dioenez, 'harri anaiak' izan ziren, baina 2018. urtean ekaitz batek bi haitzetako bat eraitsi zuen.

¹⁶ *Arrigúnaga* ahoskatzen da.

Izena	Entitate geografikoa	Udalerria(k)	Mapa
Artape	kostaldea	Ondarroa	5
Artha	dikea	Ziburu, Donibane Lohizune	10
Artibai(ren) itsasadarra (-a)	itsasadarra	Ondarroa	5
Artxabaleta	itsaslabarra	Donostia	7
Artza	portua	Bermeo	3
Artzabal	harria	Mendexa	5
Artzabal	punta	Zarautz	7
Artzukoportu	kala	Hondarribia	9
Askada	kostaldea	Bakio	3
Askibil	kala	Gorliz	2
Askorri	punta	Getxo	1, 2
Askorri [alonimoa]; Gorrondatxe	hondartza	Getxo	1, 2
Askorriaga	punta	Gorliz	2
Askorriak (-ak)	kostaldea	Bakio	3
Aspaltza (-a)	itsaslabarra	Sopela	2
Aspiribil [alonimoa] ¹⁷ ; Atxabiribil	hondartza	Sopela	2
Aspiribil [alonimoa] ¹⁷ ; Atxabiribil	haitza	Sopela	2
Asteko puntea (-a)	punta	Elantxobe	4
Astondoko hondartza; Astondo [era laburra]	hondartza	Gorliz	2
Astondopuntea (-ea)	punta	Gorliz	2
Asturiagako badia	senadia	Hondarribia	9
Aturri(ren) itsasadarra (-a)	itsasadarra	Angelu	11
Atxabiribil; Aspiribil [alonimoa] ¹⁸	hondartza	Sopela	2
Atxabiribil; Aspiribil [alonimoa] ¹⁸	haitza	Sopela	2
Atxulo	punta	Bakio	3
Atxuri	haitza	Sopela	2
Axmokor ¹⁹ [alonimoa]; Aititamakurra (-a)	harria	Lekeitio	5
Azabaratza	kala	Pasaia	8, 9
Azpategieta	itsaslabarra	Donostia	7
Baionako barra	barra	Angelu	11
Baionako portua (-a)	portua	Angelu	11
Bakioko hondartza; Areaga [alonimoa]	hondartza	Bakio	3
Balearen Bizkarra (-a)	hondartza	Donibane Lohizune	10

¹⁷ *Atxabiribil* eta *Aspiribil* aldaerak erabiltzen dira, baina lehenengoak indar handiagoa du. Osagaiak argiak dira, (h)atx+biribil. Deigarria da tartean artikulua duen *Atxabiribil* aldaera bestearen garai bertsutik lekukotzea (XVIII. mendetik, alegia).

¹⁸ *Atxabiribil* eta *Aspiribil* aldaerak erabiltzen dira, baina lehenengoak indar handiagoa du. Osagaiak argiak dira, (h)atx+biribil. Deigarria da tartean artikulua duen *Atxabiribil* aldaera bestearen garai bertsutik lekukotzea (XVIII. mendetik, alegia).

